

## Akerraren bizkar

*Deia*, 1977-07-19.

Franco diktatoreak sufritu arazi digu; inor ez da inoiz kalte guzi hoién pillaketa neurtzeko gai eta gauza izango.

Hala ere, gurea den alferkeria asko joan da haren bizkar.

Franco hil aurretik, honek zituen guri gertatzen zitzaizkigunaren erru guztiak.

Eta hau ez da egia osoa.

Gaur gertatzen diren gertakizun batzu, argibide.

Euskal abertzaleok ba genituen alor bat baino gehiago langile zai: ikastolak, euskal alfabetatzea, inmigrante edo etorkinengana urbidu eta gure mundurako integrazio bide bat irekitzen hastea, gure kultur-bide asko ibiltzea, euskera ikastea edo aberastea, euskal aldizkariak irakurri, zabaldu eta diruz laguntzea.

Ikastolaren alorrak izan ditu langileak: miresgarria da ikastolak eraikitzeke lanean guraso eta irakasle sufritu eta arduratsuak diruz eta lanez egin dutena; bestalde, euskeraz erakusten, sosik irabazi gabe idazten; zabalkunderako diruz laguntzen; presupuesturik gabeko Euskaltzaindian eten gabeko lanak egiten.

Lan asko egin da kultur alor hontan.

Eta alfer franko izan dugu ere: orain indizio bidez euskera erraz irakurri nahi luketenak, Euskaltzaindiari akats asko eta *h* aurkitzen dizkiotenak. Baina, gutxi zerbait ikasi edo erakutsi dutenak, hitzaldiak ematen edo idazten edo diruz laguntzen zer edo ezer egin dutenak.

Franco eta *h* eta beste aitzaki asko izan du hemen jende askok denbora luzean gure herriko kulturaren alde ezer ez egiteko. Eta politika alorrean, zer esanik ez.

Abertzaleok elkartzeko ba genituen mila istilu eta aitzaki, baina batez ere ixilpearen babes-aitzaki hura. Ez baigenuen "bilerarik egiteko", "gure asmoak elkar erakusteko", eta "elkar uler-lanean aritzeko" bide errosorik.

Eta hau ez zen kontserbadore burges artean bakarrik gertatzen. Hara hemen, hainbat gauza egiteko askatasunean, eta PSOE ("hoiek lau katu dira") gure herriaren epaile.

Bitartean, gure herriko sozialista alderdiak, ez bi, hamabi, bakoitza berera, bere pertsonalkeriaren indarrez tiraka; eta hoiek bereganatu behar zituzten etorkinak, inmigranteak, harrituta, borroka hoiei begira eta gure albokoari botua ematen.

Baina orain ez da hemen hau zurituko duen Franco-rik.

Hemen gertatzen diren eta oraindik gertatuko diren huts asko, gure bizkar behar ditugu hartu.

Gureak bai-dira.